



Foru Dekretu Proiektua, 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzekoa.

I

Foru dekretu honek hainbat helburu ditu: alde batetik, partez garatzea maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituenen –horrek hainbat figura tributario aldatzea dakar berekin–, eta, bestetik, aldaketak sartzea bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan eta bai Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, bertan gai desberdinak ukituta, errenta salbuetsiak eta jarduera ekonomikoak, kasu. Era berean, doikuntza teknikoak egiten dira zerga arloko jarduketa eta prozeduren inguruan, zerga-bilketa eta zerga kudeaketarekin lotutakoetan bereziki, eta aldaketak sartzen dira Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan.

II

1/2025 Foru Arauaren erregelamenduzko garapen partziala egiteko arrazoiari dagokionez, foru dekretu honen helburu nagusia da 1/2025 Foru Arauaren 7. eta 8. artikuluetan gizarte aurreikuspenaren zerga tratamenduari buruz jaso diren aldaketak sartzea bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduan (urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsian) eta bai sozietateen gaineko zergaren erregelamenduan (ekainaren 16ko 17/20215 Foru Dekretuaren bidez onetsian). Horrez gain, onetsitako arauditik ondorioztatzen diren zenbait doikuntza tekniko ere sartu nahi dira dekretuaren bitartez.

II.1

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zergaren foru arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den aurreikuspena garatzen da, alegia, ezartzen da nola zehaztu behar den gizarte aurreikuspeneko sistemen prestazioetan kapital higigarriaren etekin gisa kalifikatu behar den zatia, behartutako entitateek hura zehazteko informazio guztia jaso ez dutenean. Zehazki, ezarrita uzten da ezen ezagutzen ez diren eskubide ekonomikoak planaren eskubide ekonomiko guztien parte erresidual bat direnean, zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitakoa izan daitekeela aplikagarri, betiere berezitasun batekin: kasu horretan, parte erresidual hori ekarpen eta kontribuzio handiagoz hartuko da.

Era berean, beharrezkoa da baldintza operatiboak finkatzea, enpresaburuek edo profesionalak gizarte aurreikuspeneko sistemei egiten dizkieten ekarpen propioak –enpresaburu edo profesional horiek sistema horien sustatzaileak eta partaideak edo mutualista, hartzailak edo bazkide babesleak eta onuradunak direnean aldi berean– proportzionaltzat har daitezkeen beren kargupeko langileei egindako ekarpenekiko, eta zerga oinarria murrizteko eskubidea eman dezaten, betiere enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioetarako ezarritako muga barruan. Horri dagokionez, ezartzen da ekarpen propioak ezin direla izan beren langileei egindako ekarpenen batezbestekoa baino 1,5 aldiz handiagoak.

Gainera, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenek eta kontribuzio enpresarialek jasotzen duten tratamendu fiskala aldatu izanak, baita prestazioei ematen zaien ere, beharrezko egiten du, alde batetik, erregelamenduan jada sartuta dauden artikuluko jakin batzuk egokitzea eta, bestetik, tratamendu fiskal berri horren inguruko zenbait alderdi zehaztu edo argitzea.



Alde horretatik, ezartzen da zein hurrenkeratan aplikatuko diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak eta kontribuzio enpresarialak, hala ekitaldikoak nola aurreko urteetan egindakoen soberakinei dagozkienak. Izan ere, gai horrek eragina izan dezake enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenetarako aurreikusitako kenkariak aplikatzeko garaian.

Era berean, 70 bis artikulua bidez, zeina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren V. tituluko III bis kapitulu berri batean txertatzen baita, enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik aplika daitezkeen kenkariei buruzko hainbat alderdi arautzen dira. Alde batetik, garatzen da 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, eta, horretarako, zehazten da zein parametro aplikatuko diren entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, datu hori behar-beharrezkoa baita besteren konturako langileek gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenengatik aplika ditzaketan kenkariak kalkulatzeko. Bestalde, badira beste alderdi batzuk ere enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik aurreikusitako kenkariaren aplikazioarekin lotuta arautzen direnak, hala nola kenkariaren sorrera, aurreko urteetan murriztu ez diren ekarpenen soberakinak murriztearen ondorio denean, edo kenkariak aplikatzeko hurrenkera, ekitaldiko ekarpenengatik sortutako kenkariekin batera aurreko ekitaldietako ekarpenei dagozkien kenkariak ere ageri direnean.

Prestazioen zerga tratamenduari dagokionez, ezartzen da errenta moduan jasotako prestazioen parte diren kapital etekinak salbuesteko baldintzak ez betetzeak aplikatutako onura galtzea ekarriko duela, eta hura zein modutan erregularizatu beharko den ere ezartzen da. Gai horretan ere, ñabardura bat sartzen da prestazioak errenta moduan jasotzeko iraupenaren beharkizunari dagokionez bai jasotzailearen heriotza kasuan eta bai zurztasun prestazioen kasuan.

Prestazioen zerga tratamenduan bereizketa bat egiten denez prestazio horretan ekarpenei eta kontribuzio enpresarialeki dagokien zatiaren eta haietatik eratorritako etekin positiboari dagokion zatiaren artean, tratamendu berritzaile hori arautzea helburu duten hainbat artikuluko berri sartzeaz gainera, egokitzapen batzuk ere egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua indarrean duen erregulazioan, kontuan hartuta aurreko tokian aipatutako prestazio zatia bakarrik hartuko dela lan etekintzat, eta bigarren tokian aipatutako prestazio zatia kapital higigarriaren etekintzat joko dela. Ondorio horietarako, bi artikuluko egokitzen dira:., lan etekin jakin batzuei aplikatu beharreko integrazio portzentajeak arautzen dituen (15. artikulua), eta lan etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa arautzen duena (99. artikulua), bai eta laugarren xedapen iragankorra ere, aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioen integrazioari buruzkoa.

Bereizketa horren ondorioz sartzen diren artikuluko berrien artean, nabarmendu daiteke kapital higigarriaren etekin gisa identifikatutako prestazio zatiaren atxikipen oinarria zehazten dela.

II.II

Sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, artikuluko bat gehitzen da aipatutako 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa garatzeko eta entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehaztea ahalbidetuko duten parametroak ezartzeko. Izan ere, datu hori ezinbestekoa gertatzen da kalkulatzeko zer kenkari diren aplikagarriak enpresa enplegatzaileek gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako kontribuzio enpresarialengatik.

III



Bestalde, gizarte aurreikuspenaren zerga tratamendua garatzeaz gain, 1/2025 Foru Arauaren ondorio diren hainbat aldaketa ere sartzen dira bi erregelamenduetan.

III.I

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan honako hauek aipa daitezke: desgaitasun eta mendekotasun maila frogatzeko eraren erregulazioa egokitzen da, haren aplikazio eremua beste kenkari batzuetara ere zabaltzeko (adingabeak eta mendekotasun edo desgaitasun maila jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik, ohiko etxebizitza alokatzeagatik eta birgaitze babestuagatik aplikatzen diren kenkarietara, hain zuzen); egokitzapenak egiten dira etxebizitza kontuei buruzko erregulazioa 1/2025 Foru Arauak kenkari horren inguruan ezarri dituen erregela berrietara egokitu dadin; eta autolikidatzeko obligazioaren erregulazioa obligazio horren eskema berrira egokitzen da lan etekinak jasotzen diren kasuetarako: atalase bikoitzeko eredia aplikatu beharrean 20.000 euroko atalase bakarria aplikatzen da orain, eta, horren ondorioz, autolikidatzeko hautazko sistema, lan etekinen gainean bakarrik aplikatu diren atxikipen portzentajeen tauletan oinarritua, desagertzen da).

III.II

Sozietateen gaineko zergan, zergaren foru arauan sartutako aldaketetatik ondorioztatzen diren doikuntza tekniko batzuk egiteaz gainera –hala nola ustiapen ekonomikoaren kontzeptuari dagokiona, mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertain gisa ematen den kalifikazioan eragiten duena, bai eta ondare sozietatearenean ere–, eta entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren erregulazioa, lehen aipatutakoa, sartzeaz aparte, ondoren jasotzen diren beste gai hauek ere arautzen dira.

Gutxieneko tributazio tasaren zehaztapenari dagokionez, eta, zehazki, 100eko 15eko muga aplikatzeko aukerarekin lotuta, argitzen da hura aplikagarria izango dela baldin eta inbertsioak benetan egiten badira, eta, inola ere ez, inbertsioetatik ondorioztatutako kenkarirako eskubidea sortze hutsagatik.

Aparteko mozkinen gaineko tributazio gehigarriari dagokionez, hura aplikatzeko irizpideak zehazten dira. Zehazki, argitzen da zer hartu behar den kontabilitate emaitza positibotzat, erreferentziazko ekitaldiak zehazten dira –baita jarduera hasten denean edo berriro heltzen zaionean ere–, eta zerga baterakuntzaren araubidean dauden taldeei aplikatu beharreko berezitasunak ezartzen dira.

IV

Aurrekoaz aparte, 1/2025 Foru Arauaren onespenuk dakartzan aldaketekin amaitzeko, beharrezkoa da aldatzea, halaber, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua, eta horren helburua da haren barruan jasotzea zergaren foru aruaren 11.1 artikuluko b) letran ezarritakoa, alegia, etxebizitzaren erosketan 100eko 4ko tasa aplikatzeko, ezinbesteko baldintza izango dela zergaduna ez izatea 5 etxebizitza baino gehiagoren titularra 100eko 50etik gorako portzentajea, eta, aurrenik zirkunstantzia hori frogatu beharko dela erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuta. Ondorio horietarako, zehazten da zer datu jaso beharko diren erantzukizunpeko adierazpen horretan.

V



Aipatutako 1/2025 Foru Arauaren garapena alde batera utzita, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan beste aldaketa batzuk ere sartzen dira, besteak beste, jarraian adierazten direnak.

Sektore publikoak ematen dituen eta salbuetsita dauden laguntza publikoen barruan honako hauek sartzen dira: Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserriar misto profesionalentzat aurreikusitako laguntzak, Diputatuen Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 28ko bileran onetsiak, nekazaritzan aritzen diren edo arituko diren pertsona fisikoei zuzenduak; Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko bideratutako laguntzak, Diputatuen Kontseiluak 2024ko abenduaren 3ko bileran onetsiak; eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa, Eusko Jaurlaritzako apirilaren 16ko 48/2024 Dekretuan aurreikusia.

Lurraldeko lehen sektoreari eusten laguntze aldera, aldaketak sartzen dira nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueren etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuaren arabera kalkulatzeko aplikatu beharreko erregela berezietan.

Alde horretatik, nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan sinplifikatu egiten dira gastuaren forfaiata konputatzeko erregelak, bikoiztasunik egon ez dadin; horrela, orain arte erabilitako erregela, alegia, aurreko urtean 30.000 eurotik beherako eragiketa bolumena zuten zergadunek aplikatzen zutena, desagertu egiten da, eta orain jarduera guztietara zabaltzen da aurreko urtean 30.000 eurotik gorako eragiketa bolumena zuten zergadunek lehenago aplikatzen zutena, eragiketa bolumena edozein dela ere; hau da, gastu gutxigarria proportzionala izango da jardueraren diru-sarreraren eta gastu jakin batzuen arteko diferentziarekiko. Gainera, kontsolidatuta geratzen da azken urteotan behin-behinean aplikatu den 100eko 70ko gastu gutxigarria, hainbat arrazoi direla medio urte hauetan guztietan pilatu eta handituz joan diren ekoizpen kostuak igotzearen ondorioz onetsi egin zena. Aipatutako lehen erregela ezabatzearen ondorioz, bertan behera utzi beharra dago, baita ere, erregela horren arabera tributatzen zuten ustiategiaren titularrak liburuak eramateko obligaziotik salbuesteko aurreikuspena, zergaren erregelamenduaren 80 bis artikuluan jasotzen zena eta erregela hori konfiguratzeko moduarekin lotu-lotuta zegoena.

Basogintza jardueretan, alde batetik, ezartzen da gaixotutako zuhaitzen mozketagatik jasotako diru-sarrerak ez direla konputatuko jardueraren diru-sarreraren artean, eta, bestetik, gastu kengarriaren portzentajea 100eko 75etik 100eko 85era igotzen da moztutako azalera basoberritzen diren kasuetan; gainera, basoberritze hori hostozabal autoktonoekin egiteko beharkizuna ezabatzen da.

Era berean, erregelamenduan sartzen dira errepide bidezko merkantzien garraio jardueren etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan kalkulatzeko aplikatu beharreko erregela bereziak, orain arte zergaren foru arauaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian araututa egon direnak eta, foru arau horren 28. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, erregelamendura ekarri nahi direnak.

Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipean arautzen dituen artikulua egokitzen da lan harreman baten ondorioz ematen ez diren hitzaldi, mintegietako ponentzia, ikastaro edo antzeko jarduketengatik lortzen diren etekinak jarduera profesionalaren etekin gisa atxikitze obligazioari egiten zaion berariazko aipamena ezabatzeko. Izan ere, 2024. urteaz geroztik, zergaren foru arauan aldatu egin zen ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak emateagatik jasotzen diren etekinen zerga tratamendua, eta harrez gero horiek guztiak lan etekintzat hartzen dira, jarduera ekonomikoen esparruan lortzen direnean izan ezik.



Aurrekoa alde batera utzita, zioen azalpen honen hasieran aipatu den bezala, aldaketa teknikoak sartzeko Zerga-bilketako Erregelamenduan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga jarduketa eta prozedurei buruzko arau komunak garatzeko Erregelamenduan eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan, betiere sistema eta bitarteko elektronikoko berrien bidez egindako ordainketa modalitate berrien gero eta garrantzi handiagoaren ondorioz.

VI.I

Zerga-bilketako Erregelamenduaren aldaketa teknikoari dagokienez, gerorapenen eta zatikapenen izapidetzeari eta ebazpenari buruzkoak nabarmendu behar dira, bai eta haien iraupenaldian zorrak kontzentsatzeari buruzkoak ere.

VI.II

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunari buruzko Erregelamendua egindako aldaketak zerikusia du zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagirian azken urteetan ezarritako zerga berrien autolikidazioen aurkezpena sartzearekin.

VI.III

Foru dekretu honen bidez Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan sartzeko aldaketak ekonomia globalizazio progresiboaren ondorio dira, zeina lagunduta baitator etengabeko aurrerapen teknologikoengatik eta Europar Batasunak finantza zerbitzuen prestazioarekin lotuta araugintza arloan egin duen harmonizazio lanarengatik. Horrek guztiak berekin ekarri du sistema ekonomikoan ordainketa zerbitzu eta modalitate berriak agertzea, baita agente berriak ere, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak esate baterako, zeinek, sistema digitaletan eta komunikazioaren teknologietan oinarrituta, posible baitute zerbitzu berri horiek eskaintzea, baita kanpotik zuzenean ere, Espainian baimenduta edo kokatuta dauden agenteekin lehia betean.

Ordainketa zerbitzu eta modalitate berri horiek, hala nola ordainketa kontuak eta txartel bidezko ordainketak, edo enpresa munduan telefono mugikorreko zenbakiei lotutako ordainketa sistemen erabilera, guztiz eraginkorrak dira finantza mugimenduak arinagoak eta azkarragoak izan daitezten.

Errealitate berri horretara egokitzea ezinbestekoa izanik, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak sartuta geratu ziren Kapitalen Zuriketa eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen aplikazio eremu subjektiboan, eta, beraz, entitate horiek behartuta daude egoki jarduteko arauak betetzera eta lege horretan eta haren garapeneko araudian ezarrita dauden informazio betebeharrak konplitzera. Gainera, obligazio horiek pertsona edo entitate ez-egoiliarrek ere bete behar dituzte, baldin eta, sukurtsalen bidez edo zerbitzu prestazio librean jardunduta, agente horien berezko jarduerak egiten badituzte. Informazio betebeharrak horien artean, Finantza Titulartasunen Fitxategiari buruzkoa dago, zeinean betiko kontuak jasotzeaz gainera (kontu korranteak, aurrezki kontuak eta gordailuak), ordainketa kontuak ere sartzeko baitira, beharrezkoa izanik, gainera, fitxategiari kontuen titular errealek identifikazio datuak ere gehitzea, besteak beste. Horrez gain, nabarmendu beharra dago kontuei buruz informatzeko obligazio hori hileroko bete behar dela.

Aurrekoa aintzat hartuta, zerga araudia kapitalen zuriketa prebenitzeko araudiarekin lerrotuz, eta ikusita sistema eta bitarteko elektronikoko berriak baliatzen dituzten ordainketa sistemak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla eta Espainiako lurraldean presentzia fisikorik ez duten agente gero eta gehiago ematen dituztela zerbitzu horiek (beste herrialde batzuetan kokatutako



agenteek), beharrezkoa da berrikustea Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 45., 46. eta 47. artikuluetan jasotzen dituen informazio betebeharren egungo eremu subjektibo eta objektiboa.

Bestalde, tributuen esparruan ezin da alde batera utzi edozein motatako txartelen erabileran oinarritutako ordainketa sistemak eta funtsen xedapen moduak garrantzi handia hartzen ari direla ohiko kreditu eta zordunketa txarteletatik haratago, banku kontu bati lotuta egon gabe kasu askotan, eta, horren ondorioz, funtsezkoa da ordainketa sistema edo bitarteko horien erabilerari buruzko informazioa eskuratzea iruzur fiskala ikertzeko eta zerga betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Horregatik, 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan 47 bis artikulua sartzen da, edozein motatako txartelak jaulkitzen dituztenek urtero informazio betebeharrak bat izango dutela ezartzeko.

Helburu horrekin, 8. artikulua Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 45., 46. eta 47. artikulua aldatzen ditu, eta 47 bis artikulua berria gehitzen du. Finantza entitateei dagozkien informazio betebeharrak buruzkoak dira denak, eta iruzur fiskalaren aurkako borroka, zerga-bilketako jarduketaren eraginkortasuna eta zergadunei ematen zaien laguntza hobetzea dute helburu.

45., 46. eta 47. artikuluen berrikuspenen berrikuntza nagusi gisa, aipatzekoa da ezen, artikulua horien indarrez, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak informazioa ematera behartutakoan artean sartuta geratzen direla, eta eremu subjektiboak barruan hartzen dituela, oro har, artikulua horietako bakoitzean aurrez definituta dauden entitate guztiak, zerbitzu horiek ematen dituztenean, baita atzerriko entitateak ere, establezimendu bidez jardun edo zerbitzu prestazio librean jardun, nahiz eta, azken kasu horretan, eremu subjektibo hori Espainian egoitza edo establezimendua duten bezeroetara mugatzen den.

Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 45. artikuluan kontuei buruz aurreikusten den informazio obligazioari dagokionez, eremu objektiboan mota guztietako kontuak sartzen dira, banku kontuak zein bankukoak ez direnak, baita, beraz, ordainketa kontuak ere; 46. artikulua, zeinean ezartzen baita Espainian ezarrita dauden enpresaburu eta profesionalen egindako ordainketei buruz informatzeko obligazioa dagoela txartel bidezko kobrantzak kudeatzeko sistemei atxikita daudenean, birformulatu egiten da mota guztietako txartelak eta telefono mugikorreko zenbaki bati lotutako kobrantza sistemak barruan sartzeko. Gainera, jakitun izanik 45. eta 47. artikuluen arabera eman behar den informazioak garrantzi handia duela eta oso erabilgarria dela zerga-bilketa jarduketarako, iruzur fiskalaren aurka egiteko eta zergadunei ematen zaizkien laguntza zerbitzuak hobetzeko, aldatu egiten da zein maiztasunarekin informatu behar den kontuei buruz eta enpresaburu eta profesionalen kobrantzak kudeatzeko baliatzen dituzten sistemei buruz, halako moduz non, maiztasun hori urtekoa izatetik hilekoa izatera pasatzen baita. Horrekin, desagertu egiten da 3.000 euroko urteko muga garbia kobrantza horiei dagokienez; kontuen kasuan, ordea, informazio ekonomikoa urte bakoitzeko azken hilabeteari dagokion aitorpenean baino ez da eman behar.

Azkenik, 47 bis artikulua berri bat sartzen da haren bitartez ezartzeko mota guztietako txartelekin egindako eragiketei buruz urtero informatu beharra egongo dela. Informazio betebeharrak horrek honako hauek hartuko ditu: urtean guztira egin diren ordainketak, karguak, kargak, diru ateratzeak eta establezimenduetan egindako gastuak. Txartelak obligaziotik kanpo geratzen dira kargu eta abonuen urteko zenbatekoa 25.000 eurotik gorakoa ez denean.



Xedapen iragankor bakar bat sartu da, eta bertan epe berezi bat ezartzen da nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatua 2025eko zergaldirako aukeratzeko eta egindako aukera hori errebokatzeko.

VIII

Bukatzeko, azken xedapen bakarrak ezartzen du noiz jarriko den indarrean foru dekretu hau eta zer ondorio izango dituen.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I.Kapitulua

1/2025 Foru Arauaren garapen partziala

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira esandako erregelamenduan:

Bat. 35 artikuluko lehen paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Zergaren foru arauak 32.5. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, etekin garbia kalkulatzeko garaian gastu kengarritzat hartuko dira etekin hori lortzeko beharrezkoak izan diren gastu guztiak eta etekin horien sorburu diren ondasun eta eskubideek erabileragatik edo denbora igarotzeagatik jasandako narriaduraren zenbatekoa. Guztiarekin ere, gastu kengarrien baturak ezingo du berekin ekarri, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbia negatiboa izatea.»

Bi. 36. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren foru arauak 32.5 artikuluan aipatzen dituen kasuetan, kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko garaian gastu kengarritzat hartuko dira higiezina eta harekin batera lagatako gainerako ondasunak amortizatzeko bideratutako diru kopuruak, betiere haien balio galera efektiboari baldin badagozkio.»

Hiru. 37. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Zergaren foru arauak 32.5 artikuluan aipatzen dituen kapital higiezinaren etekinek bi urtetik gorako sorrereldia dutenean eta modu zatikatuan jasotzen direnean, zergaren foru arauaren 30.3 artikuluko lehen paragrafoan ezarritako integrazio portzentajeak (100eko 60 edo 100eko 50) aplikatuko dira, baldin eta sorrereldiko urte kopurua, datatik datara konputatua, zatikapenen



zergaldi kopuruarekin zatituta ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan edo bost urtetik gorakoa bigarreanean.»

Lau. 42 bis artikulua gehitzen zaio III. tituluko IV. kapitulari, eduki honekin:

«42 bis artikulua. Pertsona jakin batzuek familia etxebizitzaren eskualdaketa lortutako irabaziak salbuestea.

Zergaren foru arauak 42. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorriz, zergan salbuetsita egongo dira mendekotasun larria edo handia duten pertsonak eta 65 urtetik gorakoek familia etxebizitza kostu bidez eskualdatzeagatik lortzen dituzten ondare irabaziak, bai eta zordunak edo haren bermatzaileak, hipotekarekin bermatutako zorrak kitatzeari begira, ohiko etxebizitza ordainean emateagatik agerian jartzen direnak ere, betiere baldin eta familia etxebizitza aurreko uneren batean ohiko etxebizitza izan bada zergadunarentzat eta zergadun horrek, senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean, bertan bizitzeari utzi badio erabaki judicial baten ondorioz.

Apartatu honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, eskualdaketa egin behar da etxebizitza hori familia etxebizitzatzat hartzen den bitartean, eta, gehenez ere, bi urteko epean izaera hori galtzen duenetik aurrera.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia etxebizitzatzat hartuko da ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta, hala badagokio, haien ondorengoak bizitzeko erabiltzen dena, senar-emazteak banandu edo izatezko bikotea desegiteko prozedura horretan epaileak hala erabaki duelako.»

Bost. 58. artikulua honela geratzen da idatzita:

«58. artikulua. Profesionalaren edo banakako enpresaburuaren ekarpen propioen proportzionaltasuna.

Zergaren foru arauak 71.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertuko da profesionalaren edo banakako enpresaburuaren ekarpen propioek proportzionaltasun gradu bat gordetzen dutela beren kargupeko langileen alde egiten dituzten kontribuzioekiko, horiek ez direnean kontribuzio horien batez bestekoa baino 1,5 aldiz handiagoak.»

Sei. 61. artikuluan 2. apartatua aldatu eta 3. apartatu bat gehitzen da, jarraian datorren eran:

«2. Soberakinak murriztuko dira zerga oinarri orokorra pentsio konpentsagarriekin eta urteko mantenurako ordainketekin murrizteak emaitza positiboa ematen duen lehen ekitaldian, hurrengo bost ekitaldien barruan, baina, betiere, zergaren foru arauaren 70., 71. eta 72. artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuz eta hurrengo 3. apartatuan aurreikusitako hurrenkerari jarraituz. Ondorio horietarako, soberakinak antzintasunaren arabera murriztuko dira, eta, lehen-lehenik, zaharrenak.

3. Soberakin hori gertatzen den zergaldian zergadunaren ekarpenekin batera sustatzaileak, hartzaileak edo bazkide babesleak egotzitako kontribuzioak ageri badira, eta horiek zergaren foru arauan ezarritako mugak gainditzen badituzte, murriztapenak lehentasun hurrenkera honen arabera aplikatuko dira:

1.a Aurreko ekitaldietako kontribuzioak.



- 2.a Aurreko ekitaldietan enplegu sistemei egindako ekarpenak.
- 3.a Aurreko ekitaldietan enpleguak ez diren sistemei egindako ekarpenak.
- 4.a Ekitaldiko kontribuzioak.
- 5.a Ekitaldian enplegu sistemei egindako ekarpenak.
- 6.a Ekitaldian enpleguak ez diren sistemei egindako ekarpenak.»

Zazpi. 63. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«1. Zergaren foru arauaren 23., 82., 83 bis, 86. eta 87 bis artikuluetan aipatzen den desgaitasuna Zerga Administrazioari frogatzeko, Zuzenbidean onartuta dauden frogabideetako edozein erabili ahal izango da.

Dena den, pertsonaren legezko desgaitasuna frogatutzat joko da kasu hauetan:

a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo autonomia erkidegoetako tokian tokiko organoak ziurtatzen duenean.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea, eta aipatutako organoek egiten duten beste edozein agirik ere balio izango du, betiere baldin eta bertan argi eta garbi zehazten bada desgaitasun maila zein den eta nolako lotura duen 1. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako artikuluetan, hurrenez hurren, jasotzen diren baremoekin.

b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Erregimen Bereziak ezintasun iraunkorra dela-eta aitortutako prestazioa jasotzen denean, baldin eta egoera hori aitortzeko 1. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako artikuluetan esandako desgaitasun maila exijitzen bada.

Zehazki, ondoko kausotan joko da frogatutzat 100eko 33ko desgaitasuna edo handiagoa: Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, ezintasun iraunkor osoarengatik, absolutuarengatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat aitortua dutenean, eta klase pasiboetako pentsiodunen kasuan, zerbitzurako ezintasun iraunkorrarengatik edo baliaezintasunagatik erretiro pentsio bat aitortua dutenean.

Nolanahi ere, ordezkaritza ahalmenak dituen kuradoretza ezartzen duen ebazpen judizialak erabakiko du 100eko 65eko desgaitasun maila edo handiagoa duten pertsonen alde zerga honetan aurreikusten diren xedapen espezifikoak aplikatu ahal izatea.

2. Ulertuko da pertsona bat zergaren foru arauaren 82., 83 bis, 86. eta 87 bis artikuluetan aipatzen den mendekotasun egoeran dagoela, haren mendekotasuna otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortu denean. Dekretu horren bitartez, mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onetsi zen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa.

Mendekotasun egoera eta dagokion maila Zerga Administrazioaren aurrean frogatzeko, Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo autonomia erkidegoetako tokia tokiko organoak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea, eta aipatutako organoek egiten duten beste edozein agirik ere balio izango du, betiere baldin eta bertan



argi eta garbi zehazten bada desgaitasun maila zein den eta nolako lotura duen 2. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako baremoekin.

3. Aurreko 2. apartatuan aipatutako kenkariak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da frogatzea desgaitasuna edo mendekotasuna eragiten duten zirkunstantziak zergaren sortzapen egunean gertatzen direla.

Dena den, desgaitasunak edo mendekotasun egoerak berariaz adierazita badauka iraunkorra dela, edo haren kalifikazioaren balio epean zergaren sortzapen data sartuta badago, ez da exijituko desgaitasunaren edo mendetasunaren frogagiria sortzapen datari buruzkoa izatea.»

Zortzi. 67. artikulua honela geratzen da idatzita:

«67. artikulua. Etxebizitza kontuak.

1. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatzen da kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen motatetik bereizitako kontuetan, diru kopuruak gordailutzea, baldin eta kenkarirako eskubidea eman duten zenbatekoak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira etxebizitza hori erosi aurreko sei urteak igaro baino lehen. Kenkaria aplikatu den zergaldietako zergaren sortzapen egunetik hasita kontatuko da epe hori.

Hala ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea 10 urtekoa izango da, etxebizitza kontua ireki den urteko zergaren sortzapen egunean titularrak 36 urte baino gutxiago dituzenean.

Ez da ulertuko etxebizitza kontu batean sartu eta horregatik kendutako zenbatekoak ohiko etxebizitzaren erosketara bideratzeko beharkizuna bete denik, kopuru horiek beste etxebizitza kontu batean sartzen direnean.

2. Kenkarirako eskubidea galduko da kasu hauetan:

a) Zergadunak etxebizitza erostea ez den beste xede batzuetarako erabiltzen dituzenean etxebizitza kontuan sartu diren eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak, eta horiek ez direnean berriro sartzen, oso-osorik, kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean, zergaren sortzapena gertatu baino lehen. Kopuruaren zati bat erabiliz gero, aurrenik sartutakoak erabili direla joko da.

b) Kenkaria aplikatu zen zergaldiari dagokion zergaren sortzapenetik sei urte igaro direnean eta kenkari horretarako eskubidea sortu duten zenbatekoak ohiko etxebizitza erosteko erabili ez direnean. Etxebizitza kontua irekitzen den urteko zergaren sortzapen egunean etxebizitza kontuaren titularrak 36 urte baino gutxiago baditu, epe hori 10 urtekoa izango da.

c) Ohiko etxebizitza geroago erosi eta kenkari honetarako eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez direnean.

3. Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bakarra izan dezake.

4. Etxebizitza kontuak bereizita identifikatuko dira zergaren autolikidazioan, gutxienez datu hauek jarrita:

- Zein entitatetan ireki den kontua.

- Kontuaren zenbakia.



- Kontuaren irekiera data.
- Kontuaren saldoak ekitaldian izan duen gehikuntza.»

Bederatzi. III bis kapitulua gehitzen zaio V. tituluari, ondoren zehazten den edukiarekin:

«III BIS KAPITULUA: Kenkariak gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik.

70 bis artikulua. Kenkariak gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Ekarpinak egiten diren zergaldian entitate enplegatzaileko langile guztiek urtean jasotako soldata gordin osoa konputatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, gizarte aurreikuspeneko planak negoziazio kolektiboaren ondorioz sortu badira eta haiei atxikitzea langileen borondatezko erabakia bada, plan horiei atxikitako langile guztien urteko soldata gordina hartuko da kontuan.

b) Entitate enplegatzaileko langile bakoitzaren urteko soldata gordina honako hau izango da: 190 ereduaren 2. motako erregistroan, ordainketen erregistroan, diruzko zein gauzazko ordainketen eremuetan, lanerako ezintasunarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik adierazitako zenbatekoen batura. Zenbateko horiek A gakoarekin egongo dira identifikatuta eredu horretan («Lanaren etekinak: besteren kontura enplegatutako pertsonak oro har», entitate enplegatzailearen langileen plantillakoak, aurreko a) letraren arabera aintzat hartzekoak). Ereduak «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipeak eta konturako sarrerak. urteko laburpena» du izena.

2. Erregelamendu honen 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, zergaldian posible bada aurreko ekitaldietan egindako ekarpenak egozte, eta ekarpen horiek egin ziren zergaldian eskubidea ematen bazuten zergaren foru arauaren 90 bis eta 90 ter artikuluetan eta berrogeigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkariak aplikatzeko, kenkari horiek murriztapenaren zergaldian aplikatu ahal izango dira, jatorrizko zergaldirako ezarritako portzentajeak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

3. Gertatzen bada zergaldian badaudela ekarpenak eskubidea ematen dutenak zergaren foru arauaren 90 bis eta 90 ter artikuluetan eta berrogeigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkariak aplikatzeko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik, eta horiekin batera aurreko ekitaldietako ekarpenak ere aplikatu daitezkeela (aurreko apartatuan aipatutakoak), aurreko urteetan egindako ekarpenen kenkariak aplikatuko dira lehen-lehenik.»

Hamar. 72. artikuluko 2. eta 3. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«2. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsiko ditu autolikidazio ereduak eta autolikidazioa egiteko modalitate sinplifikatu edo bereziak, eta berak ezarriko du horiek nola eta zein epetan aurkeztuko diren.



Zergadunek beraiei buruz eskatzen diren datu guztiak bete beharko dituzte autolikidazioetan, eta ezarrita dauden edo ezartzen diren dokumentu eta frogagiriak ere aurkeztu beharko dituzte haiei erantsita.

3. Batera tributatzea aukeratzen bada, autolikidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztuko dute, eta pertsona horiek familia unitateko seme-alaben ordezkari moduan jardungo dute, Zergen Foru Arau Orokorrak 45. artikulua jasotako terminoetan.

Aurrekoa gorabehera, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak metodo alternatiboak ezarri ahal izango ditu autolikidazioa sinatzeko, baita hura izenpetzeko obligaziotik salbuetsi ere, autolikidazioa aurkezteko modalitatea kontuan hartuta.»

Hamaika. 73. artikulua honela geratzen da idatzita:

«73. artikulua. Autolikidatzeko betebeharretik salbuestea.

1. Zergadunak ez dira behartuta egongo zerga autolikidatzera, lortzen dituzten errenten iturria honako hauetako bat bakarrik denean:

a) 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, banaka aitortzen bada. Batera aitortzen den kasuetan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari dagokionez aplikatuko da.

b) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuetan, haien urteko kopurua, batera hartuta, 1.600 eurotik gorakoa ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabaziei dagokienez, baldin eta haien atxikipen oinarria, 110.2 ezartzen denari jarraituta, ez bada zehaztu behar zerga oinarrian integratu beharreko zenbatekoa kontuan hartuta.

2. Aurreko apartatuan esandakoa gorabehera, kontura egindako ordainketen itzulketa jasotzeko, autolikidazioa aurkeztea nahitaezkoa izango da.»

Hamabi. Edukirik gabe uzten da 74. artikulua.

Hamahiru. Bederatzigarren xedapen iragankorrari eduki hau ematen zaio:

«Bederatzigarren xedapen iragankorra. Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako gehiegizko ekarpen eta kontribuzioak aplikatzeko hurrenkera, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen murriztu ez direnean.

2025eko urtarrilaren 1a baino lehen zergadunek egin dituzten ekarpenak edo egotzi dituzten kontribuzioak ez badira zerga oinarri orokorrean murriztu zergaren foru arauaren 71. artikuluko 3. apartatuan, 72. artikuluko 2. apartatuan eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko b) letran aurreikusitakoaren arabera, posible izango dute soberakin horiek geratzen diren ekitaldietan aplikatzea, zergaren foru arauaren hogeita hamazortzigarren xedapen iragankorrean eta erregelamendu honen 61. artikulua 2024ko abenduaren 31n indarrean zeukan idazketan ezarritakoari jarraituta.»

Bigarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira esandako erregelamenduan:



Bat. II. tituluari 12 ter artikulua gehitzen zaio, eta honela dio:

«12 ter artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemetatik errenta moduan jasotzen diren prestazioei dagozkien kapital etekinak salbuestea.

1. Zergaren foru arauaren 9. artikuluko 39. zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako, aldi baterako errentaren iraupenari buruzko beharkizuna ez da urratutzat joko kasu hauetan: kobratzen hasten denetik hasiera batean gutxienez 15 urteko epe bat ezarrita egonik, errenta jaso behar duen pertsona hiltzen denean, zergadunaren inbertsio asmoarekin zerikusirik ez duten beste inguruabar batzuk gertatzen direnean, edo, zurtasun prestazioen kasuan, beren izaeragatik 15 urteko iraupenera iristen ez direnean.

2. Errenta moduan jasotako prestazioaren gutxieneko iraupenari buruz edo haren zenbateko konstanteari buruz, 9. artikuluko 39. zenbakian aurreikusitako beharkizunak a posteriori ez betetzeak salbuespena galtzea ekarriko du berekin, eta zergaduna behartuta geratuko da ez-betetzea izan den zergaldiko aurrezpenaren zerga oinarrian konputatzera prestazioa jaso zen unean salbuetsizat jo ziren etekinak. Hori ez da aplikatuko izandako alterazioa arrazoi tekniko edo finantzarioengatik gertatu bada.

Zergaldi bakoitzeko konputatzen diren etekinen zenbatekoari zenbateko horren 100eko 5 gehituko zaio, salbuespena aplikatu zen zergaldiko azken egunetik erregularizazio hori eragiten duten baldintzak bete ez ziren zergaldiko azken egunera bitarte igaro den urte bakoitzeko.»

Bi. 15. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren foru arauaren 18.a) artikuluan jasotako prestazioen kasuan, alde batera utzita bai 1., 2. eta 4. zenbakietan aurreikusitakoak, azken horiek gizarte aurreikuspeneko mutualitateek langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten duten kasuetan, eta bai 6. zenbakian aipatutakoak, prestazioak modu mistoan jasotzen badira edozein motatako errentak kapital moduan jasotako kopuruekin konbinatuta, 19.2 artikuluko b) letran aurreikusitako portzentajeak kapital moduan kobratzen diren kopuruei bakarrik aplikatuko zaizkie.

Zergaren foru arauaren 18.a) artikuluko 6. zenbakian aipatzen diren prestazioen kasuan, behin kopuruak errenta moduan kobratzen hasi ondoren errenta hori modu aurreratuan berreskuratzen bada, azken etekin horri aplikatuko zaizkio prima bakoitzak errenta eratzeko unean daukan antzinatasunaren arabera dagozkion integrazio portzentajeak.»

Hiru. 99. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, ondoren zehazten den eran, eta, horren ondorioz, egungo 3. eta 4. apartatuak 4. eta 5. apartatu bihurtzen dira.

«3. Zergaren foru arauaren 18. artikuluko a) letran aipatutako prestazioen kasuan, alde batera utzita bai 1., 2. eta 4. zenbakietan aurreikusitakoak, azken horiek gizarte aurreikuspeneko mutualitateek langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten duten kasuetan, eta bai 6. zenbakian aipatutakoak, atxikipena aplikatuko da prestazioan zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitako etekinekin zer ikusirik ez duen zatiaren gainean, prestazio hori errenta moduan jaso edo kapital moduan jaso.»

Lau. 106. artikuluko 4. eta 5. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«4. Zergaren foru arauaren 37. artikuluko a) letratik d) letrara bitartean araututako etekinei arau horren 39.3 artikuluan aipatzen diren portzentajeak aplikagarri bazaizkie, portzentaje horiek kontuan hartuz kalkulatu da atxikipen oinarria.



5. Aseguru kontratuengatik jasotzen diren zenbatekoetan eta kapitalen ezarpenaren ondorioz eskuratzen diren biziarteko nahiz aldi baterako errentetan, bai eta zergaren foru arauaren 37.e) artikuluan aipatzen diren etekinen kasuan ere, zergaren foru arauari jarraituz kalkulaturako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da atxikipen oinarria.»

Bost. Beste xedapen gehigarri bat sartzen da, hamabosgarrena, eduki hau izango duena:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. Zergaren foru arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarria aplikatzeko erregela gehigarriak.

Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenetatik eta kontribuzio enpresarialetatik datozen etekin positiboak zehaztearen ondorioetarako, zergaren foru arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa erregela gehigarri hauen arabera aplikatuko da:

1.a Gizarte aurreikuspeneko plan bakoitzean, zergadunak atxikipenaren unetik duen antzintasuna banaka hartuko da kontuan.

2.a Antzintasuna ez badator bat urte osoekin, goitik biribilduko da.

3.a Ezagutzen ez diren eskubide ekonomikoak planaren eskubide ekonomiko guztien parte erresidual bat direnean, etekin positiboa zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitakoaren arabera zehaztu ahal izango da, eta parte erresidual hori ekarpen eta kontribuzio handiagotzat hartuko da.

Ondorio horietarako, eskubide ekonomiko ezezagunen parte parte erresidual bat dela joko da planaren eskubide ekonomiko guztien 100eko 5 edo 10.000 euro baino handiagoa ez denean.»

Sei. Laugarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Laugarren xedapen iragankorra. Aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioak integratzea.

Zergaren foru arauak hogeita zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondorioetarako, hau ulertuko da:

a) Zergaren foru arauaren 19.2 artikuluko b) letran aurreikusitako 100eko 70eko integrazioa zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitako etekinekin bat ez datorren prestazio osoaren gainean aplikatuko dela.

Hala ere, zergaren foru arauaren hogeita hamaseigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatzea erabakitzen bada, kasuan kasuko integrazio portzentajea egindako ekarpen eta kontribuzioak hartzen dituen eta dagozkien kapital higigarriaren etekin positiboak biltzen dituen prestazio zatiari aplikatuko zaio.

b) Ekarpenen batez besteko iraupena zehazteko garaian, prestazioa jasotzeko arrazoi diren ekarpenak eta, egonez gero, kontribuzioak baino ez dira konputatuko.»

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, aldaketa hauek sartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsian:



Bat. Edukirik gabe uzten da 1. artikulua.

Bi. Edukirik gabe uzten dira 2. artikuluko 3. eta 4. apartatuak.

Hiru. III. tituluari 37 undecies artikulua gehitzen zaio, honela dioena:

«37 undecies artikulua. Kenkariak enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioengatik. Urteko soldata gordina entitate enplegatzailean.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Ekarpinak egiten diren zergaldian entitate enplegatzaileko langile guztiek urtean jasotako soldata gordin osoa konputatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, gizarte aurreikuspeneko planak negoziazio kolektiboaren ondorioz sortu badira eta haiei atxikitzea langileen borondatezko erabakia bada, plan horiei atxikitako langile guztien urteko soldata gordina hartuko da kontuan.

b) Entitate enplegatzaileko langile bakoitzaren urteko soldata gordina honako hau izango da: 190 ereduaren 2. motako erregistroan, ordainketen erregistroan, diruzko zein gauzazko ordainketen eremuetan, lanerako ezintasunarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik adierazitako zenbatekoen batura. Zenbateko horiek A gakoarekin egongo dira identifikatuta eredu horretan («Lanaren etekinak: besteren kontura enplegatutako pertsonak oro har», entitate enplegatzailearen langileen plantillakoak, aurreko a) letraren arabera aintzat hartzekoak). Ereduak «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. urteko laburpena» du izena.»

Bigarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko III. tituluari bi kapitulu gehitzen zaizkio, eta I. kapitulu eta II. kapituluaren izena (azken horretan III. kapituluaren egungo edukia jasotzen da) honela geratzen dira idatzita:

«I. KAPITULUA. KUOTA OSOA ETA GUTXIENeko TRIBUTAZIOA.

33 bis artikulua. Kuota osoa eta gutxieneko tributazioa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 59. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da egiten diren inbertsioek foru arau horren 61. artikulutik 65. artikulura bitartean ezarritako kenkariak aplikatzeko eskubidea eman dezaketela artikulua horietan jasotzen diren inbertsioetako edozein egiten denean; horretarako, ez da beharrezkoa izango frogatzea adierazitako kenkariak aplikatzeko baldintzak betetzen direnik.»

«II. KAPITULUA. Beste kenkari batzuk.»

Hirugarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietan ondorioak izateko, bederatzigarren xedapen gehigarri bat eransten zaio ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari, eta honela dio:



«Bederatzigarren xedapen gehigarria. Aparteko mozkinen gaineko tributazio gehigarria.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, kontabilitate emaitza positibotzat hartuko da zergadunaren finantza egoera-orrrietatik eratorritako emaitza, zergak aplikatu aurrekoa, amortizazioak eta narriadurak konputatu gabe, zenbateko hauek murriztu eta gero:

a) Zergaren foru arauaren IV. tituluko III. kapituluaren xedatutakoa aplikatuz, zergaldian zehar diru-sarreretan egin diren doikuntzak.

b) Behar bezala justifikatuta dauden aparteko zirkunstantzietatik ondorioztatutako emaitzak. Zirkunstantzia horiek apartekoak diren edo ez, Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakiko du ebazpen bidez, zergadunak alde zuzenetik eskatuta. Besteak beste, zirkunstantzia hauek baloratuko dira: enpresak kontzentratzeko eragiletak dauden, linealak ez diren ziklo ekonomikoak ageri diren, aurreko zergaldietako emaitzak murrizteko kausak dauden, eta halabeharrezko beste egoera batzuk gertatu diren.

2. Zergaren foru arauaren 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko erreferentziazko ekitaldian edo aurreko hiru ekitaldietako batean zergadunak kontabilitate emaitza negatiboak izan dituztenean edo emaitza hori zero izan denean.

Era berean, apartatu horretan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta erreferentziazko ekitaldian edo aurreko hiru ekitaldietako batean zergadunak zergaren foru arauaren 61., 62tik 64ra, 65., 66. edo 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariren baterako eskubidea frogatu badu.

3. Entitate sortu berrien kasuan, 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasi ondorengo lehen lau zergaldietan.

Apartatu honetan xedatutakoa aktibo ez dauden entitateei ere aplikatuko zaie, jarduera ekonomiko berriak hasten dituztenean edo beren jarduerari berriro heltzen dietenean.

Ondorio horietarako, entitate ez-aktibotzat hartuko da jarduera ekonomikoan gutxienez urtebetez aritu gabe egondakoa.

Jarduera ekonomiko baten hasiera eta amaiera datak zehazteko, jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aitorpenetan adierazitako alta edo baja datak hartuko dira kontuan, kontrako frogarik ezean.

4. Baterakuntza fiskaleko taldeen kasuan, zergaren foru arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ondorioetarako, zehaztutako hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, entitateak baterakuntza fiskaleko talde bateko kide badira zergaren foru arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ondorioetarako, abiapuntutzat hartuko da baterakuntza fiskaleko taldearen kontabilitate kontu bateratuetatik eratorritako kontabilitate emaitza. Kontabilitate kontu bateratu horiek 56 artikuluko 7. apartatuan aipatutako ekitaldietako bakoitzaren zerga aitorpenean adierazitakoak izango dira. Hortaz, artikuluko honen 1. apartatuan definitutako kalkulu irizpideak talde fiskalari buruzkoak izango dira.

b) Baterakuntza fiskaleko taldeak sortu berriak diren kasuan, 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu behar den bosgarren ekitaldira iritsi arte, non eta araubidea aplikatzen den lehen ekitaldian sozietateek kontabilitate emaitza bateratuari egiten dioten ekarpena ez den gutxienez kontabilitate emaitza positibo



bateratuaren 100eko 80koa, eta baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu behar den lehen ekitaldia hasi aurreko hiru ekitaldietan sozietate horiek ez zeuden jada eratuta eta jarduera ekonomiko batean arituz.

Azken kasu horretan, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate emaitza positiboen batezbestekoa kalkulatu da honako hauek kontuan hartuta:

a') Baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu den aurreko ekitaldien kasuan, baterakuntza fiskaleko taldeak araubidea indarrean egon den ekitaldietan izan dituen kontabilitate emaitza positiboak.

b') Baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu ez den aurreko ekitaldien kasuan, erreferentziazko zergaldian baterakuntza fiskaleko taldea osatzen duen entitate bakoitzaren kontabilitate emaitzen batura positiboak.

c) Baterakuntza fiskaleko taldea azkentzen bada edo entitateren bat banatzen bada taldetik, banaka tributatzera igarotzen diren entitateek —zergaren foru arauaren 56. artikuluko 7. apartatua xedatutakoa aplikatzeko— banakako araubidean tributatzeko aritu izan balira bezala hartuko dituzte bai banakako araubideko ekitaldian lortutako kontabilitate emaitza positiboak bai aurreko hiru zergaldietan beren finantza egoera-orri indibidualetatik eratorritako kontabilitate emaitza positiboak, behin artikuluko honen 1. apartatua ezarritako gutxipenak eta zuzenketak aplikatu ondoren.

d) Baterakuntza fiskaleko talde batean entitate berriak sartzen badira, aurreko hiru zergaldietan lortutako kontabilitate emaitza positiboak zehazteko, zergaldi horietako bakoitzean talde fiskalak izan duen kontabilitate emaitza bateratuari taldean sartu den entitatearen kontabilitate emaitzak gehituko zaizkio, baina, betiere, baldin eta aipatutako zergaldietan entitatea eratuta egon bada eta jarduera ekonomiko bat egin badu.

Baterakuntza fiskaleko taldean sartu den entitatea ez bada egon eratuta eta jarduera ekonomiko bat egiten aurreko hiru zergaldietan, orduan, batezbestekoa kalkulatzeko, talde fiskalaren kontabilitate emaitza bateratuei bakar-bakarrik gehituko zaizkie entitate hori eratuta eta jarduera ekonomiko bat egiten egon den zergaldietan lortu dituen kontabilitate emaitzak.

e) Azkenik, artikuluko honen 2. apartatua xedatutakoa baterakuntza fiskaleko taldeei ere aplikatuko zaie. Apartatu horren lehen paragrafoari dagokionez, 56 artikuluko 7. apartatua xedatutakoaren aplikaziotik salbuetsita geratzeko, baldintza hau bete beharko da: artikuluko honetan jasotako zehaztapenen arabera kontuan hartu beharko litzatekeen kontabilitate emaitza, taldeari dagokiona, negatiboa edo zero izatea, dela uneko zergaldian dela aurreko hiru zergaldietako edozeinetan.»

3. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua I. tituluko IV. kapituluari 18 bis artikulua gehitzen zaio, eta honela dio:

«18 bis artikulua. Beste etxebizitza batzuen titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, 100eko 4ko zerga tasa aplikatu ahal izateko.

Zergaren foru arauaren 11.1 artikuluko b) letraren hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zergadunek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute bertan



adierazita utziz ez direla beste 5 etxebizitzaren edo gehiagoren titularrak 100eko 50etik gorako portzentajearen haietako bakoitzean, eta, gainera, identifikatu beharko dute zein etxebizitzatan duten 100eko 50etik gorako titulartasun portzentajea eta titulartasun hori zenbatekoa den.

Ondorio horietarako, identifikazioan etxebizitzaren helbidea eta posta kodea zehaztuko dira, baita etxebizitzaren katastro erreferentzia edo finka zenbakia ere. Etxebizitza atzerrian kokatuta badago, datu hauek zehaztuko dira: herrialdea, posta kodea, eta lurralde horretan katastro erreferentziaren edo finka zenbakiaren baliokidea den identifikazio kodea.»

II. Kapitulumia

Bestelako aldaketak hainbat erregelamendutan

4. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira esandako erregelamenduan:

Bat. 12.1 artikuluari x), y) eta z) letrak gehitzen zaizkio, eta honela diote:

«x) Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserritar misto profesionaleri zuzendutako laguntzak, Diputatuen Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 28ko bileran onetsiak, nekazaritza jardueran ari diren edo arituko diren pertsona fisikoek jasotzen dituztenean. Laguntza horien oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia 2025eko otsailaren 4an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

y) Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko bideratutako laguntzak, Diputatuen Kontseiluak 2024ko abenduaren 3ko bileran onetsiak. Haien oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia 2024ko abenduaren 19an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

z) 48/2024 Dekretua, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duena.»

Bi. 31. artikulua honela geratzen da idatzita:

«31. artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan zehazteko erregela bereziak.

1. Zergaren foru arauak 28. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa garatze aldera, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren kasuan, haien lehen eraldaketa barne, etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan zehazteko garaian, zergaren foru arauaren 28. artikulua 1. apartatuko b) letran aipatzen den gutxipena 100eko 70koa izango da.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako, hauexek izango dira nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak: abeltzaintza independentea; abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak; balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo dauden nekazari edo abeltzainek egindako beste lan eta zerbitzu osagarriak; eta



aipatutako zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian sartzeko modukoa den nekazaritza edo abeltzaintza jarduera.

2. Aurreko 1. apartatuko erregela berezia aplikagarria izango zaio, baita ere, nekazaritzako turismo ostatuaren jarduerari, haren titularrak egiten duen nekazaritza, abeltzaintza edo baso jardueraren jarduera osagarri deklaraturik badago.

Ondorio horietarako, nekazaritza, abeltzaintza edo baso jardueren titularrek nekazaritzako turismo ostatuaren zerbitzuak egiten badituzte, zerbitzu horiek osagarriak direla frogatu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den departamentuak luzatutako ziurtagiria aurkeztuta.

Nekazaritzako turismo ostatuaren zerbitzuak ziurtagiri hori eskuratu gabe egiten dituztenek ezingo dute kalkulatu jarduera horren etekin garbia artikuluan honetan aurreikusitako erregela bereziak aplikatuta.

3. Orobat, 1. apartatuko erregela bereziak aplikagarriak izango zaizkie produktu naturalak -landare zein animalienak- eraldatu, prestatu edo manufacturatzeko jarduerari, baldin eta jarduera horiek beharrezko egiten badute jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren tarifetan industria jarduerari dagokien epigrafe batean alta ematea eta produktu natural horiek zuzenean lortzen diren ustiatzearen titularrek eginak badira.»

Hiru. 32. artikulua honela geratzen da idatzita:

«32. artikulua. Baso jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan zehazteko erregela bereziak.

1. Zergaren foru arauak 28. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa garatze aldera, baso jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan kalkulatzeko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Diru-sarrerak kalifikatu eta kuantifikatuko dira zergaren foru arauan ezarritako erregela orokorrak aplikatuta, betiere jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak kanpoan utzita. Diru-sarreretatik kanpo geratuko dira, orobat, gaixotutako zuzaitzen mozketarako emandako baimenaren ondorioz lortzen direnak.

b) Gastu kengarriak frogatzen eta baloratzen zailak direnez, aurreko a) letran aipatutako diru-sarreraren 100eko 65eko portzentajea aplikatuta konputatuko dira.

Moztutako azalerak zergadunak basoberritzen dituzenean, aurreko paragrafoan aurreikusitako gastu kengarrien portzentajea aurreko a) letran aipatutako diru-sarreraren 100eko 85 izango da.

Basoberritze lana 2. apartatuan ezarritako baldintza eta epeetan egin beharko da.

Ezingo da beste ezein gasturik kendu.

c) Kalkulatu behar da zein den aurreko letratan aipatutako diru-sarreraren eta gastuen arteko diferentzia.

Bidezkoa den kasuetan, diferentzia horri aplikatuko zaion tratamendua zergaren foru arauak bi edo bost urtetik gorako sorrerak dituzten eta aldian-aldian edo behin eta berriz lortu ez diren jarduera ekonomikoaren etekin garbietarako aurreikusitakoa izango da.



d) Azkenik, jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak gehitu edo kenduko dira, dagokionaren arabera, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta horren emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

2. Moztutako azalerak bi urteko epean basoberritu behar dira, mozketa egiten den unetik zenbatzen hasita, eta Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen departamentuak emandako ziurtagiria aurkeztuz justifikatu beharko da.

Basoberritzea ez bada egiten, aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz, ukitutako azalera mozten den urte berean, zergaduna behartuta egongo da mozketa egiten den ekitaldiko zergaren autolikidazioan adieraztera basoberritze hori ezarrita dauden baldintza eta epeetan egiteko asmoa duela.

3. Zergadunak ez baditu betetzen moztutako azalerak basoberritzeko aurreko apartatuan ezarritako baldintzak, autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko du 1.b) apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako gastu kengarrien portzentajea aplikatu den zergaldiari dagokionez.

Ondorio horietarako, zergadunak berriro kalkulatu beharko du aurreko paragrafoan aipatutako urtean baso jarduerak eman duen etekin garbia, 1.b) apartatuko lehen paragrafoan ezarritako gastu kengarrien portzentajea aplikatuz, eta ateratzen den kuota ordaindu beharko du, bidezko berandutze interesekin batera.

Autolikidazio osagarria baldintzak bete ez diren egunetik ez-betetzea gertatu den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu arte aurkeztu daiteke.»

Lau. III. tituluko II. kapituluaren 2. sekzioko 2. azpisekzioan 33 ter artikulua gehitzen da, honela dioena:

«33 ter artikulua. Merkantzien errepide bidezko garraio jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan zehazteko erregela bereziak.

Zergaren foru arauak 28. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa garatze aldera, merkantziak errepidez garraiatzeko jardueretan, etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuaren bidez zehazteko, 28. artikuluko horren 1. apartatuko b) letran aipatzen den gutxipena 100eko 70ekoa izango da.

Xedapen honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako, merkantzien errepide bidezko garraio jardueratzat joko dira apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako 722. epigrafean jasotakoak.»

Bost. 71. artikulua honela geratzen da idatzita:

«71. artikulua. Kenkarirako eskubidea galtzea.

Zergaren foru arauaren 87. eta 88. artikuluetan aurreikusitako kenkarietan, gertatzen bada horiek aplikatu ondorengo zergaldietan kenkari horietarako eskubidea galtzen dela, dela osorik dela zati batean, zergadunak bi kopuru hauek gehitu beharko dizkio beharkizunak bete ez diren ekitaldian sortutako kuota likidoari: bidegabeki kendutako zenbatekoak gehi Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan aipatzen dituen berandutze interesak.



Dena den, zergadunak beti aukeratu ahal izango du bidegabeki kendutako zenbatekoak eta bidezkoak diren berandutze interesak modu aurreratuan ordaintzea ez-betetzea gertatu den zergaldia hasi aurreko zergaldi bateko autolikidazioan.»

Sei. 80 bis artikulua indargabetzen da.

Bigarrena. Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera ondorioak izateko, aldaketa hauek sartzen dira:

Bat. 1. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren foru arauaren 56 bis.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, bereziki kualifikatutako lantzat hartuko dira Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren arabera kategoria profesionala 1. kotizazio taldean duten langileek egiten dituztenak, indarrean dagoen araudiak xedatutakoarekin bat, betiere, baldin eta lan horiek lotuta badaude, nagusiki eta zuzenean, zergaren foru arauaren 56 bis.1.a) artikuluko a') letran aipatzen diren jarduerekin. Horietako batzuk hurrengo apartatuan garatzen dira.»

Bi. 27. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, lehen sektorean integratuta dauden jarduera ekonomikoei ez zaie aplikatuko aurreko 1.a) apartatuan aurreikusitako magnitudea. Jarduera horiek honako hauek dira, zehazki: erregelamendu honen 31. artikuluan jasotakoa aplikatzea nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak, basogintza eta baxurako arrantza.»

Hiru. 29. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiek hautatu behar dute modalitate sinplifikatua aplikatzea edo haren aplikazioa errebokatzea, 28. artikuluan xedatutakoarekin bat.»

Lau. 42. artikulua izenburua honela berridazten da:

«42. artikulua. Zergaren foru arauaren 39. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak, denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutakoak, zatika jasotako etekinak, eta sorreraldiaren zehaztapena.»

Bost. 108.2 artikuluko 4. zenbakia ezabatzen da.

5. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 14.1 artikuluko c) letra honela geratzen da idatzita:

«c) Pertsona talde generikoei berdintasun baldintzetan ematen zaienean. Baldintza hori ez dela betetzen ulertuko da sustatzaileak, afiliatuak, konpromisarioak eta zuzendaritza eta administrazio organoetako kideak, edo haien ezkontideak, izatezko bikote lagunak edo laugarren gradurainoko ahaideak, horiek barne (izan ahaidetasun harremana odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa, edo adopzioa), jardueraren hartzaile nagusiak direnean edo haren zerbitzuak erabiltzeko baldintza bereziak dituztenean.»



6. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. 3. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezakete beren gain, hitzarmenak formalizatuta eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Haien ezaugarriek hala exijitzen badute, hitzarmenen iraupena 4 urtetik gorakoa izaten ahalko da.»

Bi. 32. artikuluko 5etik 7ra bitarteko apartatuak honela berridazten dira:

«5. Eskaera onartzea ebazten bada, eskainitako ondasunak entregatzea edo eskura jartzea ezinbesteko baldintza izango da ebazpena eraginkorra izan dadin. Ondasunak onarpenari buruzko ebazpenean jasotako moduan eta epean entregatzen edo eskura jartzen badira, zorra iraungitzeko ondorioak eskaeraren datatik aurrera gertatzen direla ulertuko da.

Ordainketa gauzen bidez egitea onartzen bada, berandutze interesak likidatuko dira ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik ebazpena ematen den egunera arte, eta onarpenaren ebazpenean bertan jasota utzi daiteke ordainean emandako ondasunaren balioa behar bestekoa izanez gero ondasun hori berandutze interes horiek kitatzeko baliatu daitekeela. Horrek ez du eragotziko, dena den, gerora bestelako interesak sortzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan xedatutakoarekin bat.

6. Ezezko ebazpena ematen bada, ondorioak honako hauek izango dira:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada, ezezko ebazpenaren jakinarazpenak berekin ekarriko du 10 eguneko epea hastea, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, diru-sarrerara egin dadin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

Zorra ez bada epe horretan ordaintzen, hasiera emango zaio epe exekutiboari, eta premiamenduzko prozedura abiatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluetan jasotako terminoetan.

Era berean, berandutze interesak likidatuko dira ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ezezko ebazpena ematen den egunera arte, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan xedatutakoaren arabera gerora sor daitezkeen bestelako interesak eragotzi gabe.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan, lehenagotik hasi ez bada betiere.

7. Ondasunak 10 eguneko epean entregatu edo jarri behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku, gauzen bidezko ordainketa onartzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, non eta entrega edo eskura jartzen hori ez den lehenago egin. Zerga-bilketako organoari ondasunak adostasunez jaso izanaren frogagiriaren kopia bidaliko zaio.



Ondasunak ez badira aurreko paragrafoan adierazitako moduan entregatzen edo eskura jartzen, onarpenaren ebazpena ondorioz gabe geratuko da, eta horrek honako hau ekarriko du:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada eta epe hori igarota badago, ondasuna entregatzeko edo eskura jartzeko epea amaitu eta hurrengo egunean epe exekutiboa hasiko da, eta premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan. Horrelakoetan, zorraren tronkoa eta epe exekutiboko erreargua ordaintzea exijituko da.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedurarekin jarraitu beharko da.»

Hiru. 38.3 artikuluko c) letra honela geratzen da idatzita:

«c) Gerorapena edo zatikapena indarrean dagoen bitartean zorrak zordunaren alde aitortu litezkeen kredituekin konpentsatzeko eskaera. Nolanahi ere, konpentsazio eskaera hori aurkeztutzat joko da gerorapen edo zatikapen eskaera bermea aurkeztetik guztiz edo partez salbuetsita dagoenean, erregelamendu honen 44.1.A.b) artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.»

Lau. 44.1.A artikuluko b) letra honela geratzen da idatzita:

«b) Ebazpenean egoki irizten diren baldintzak ezarri ahal izango dira ordainketa eperik laburrenean egingo dela ziurtatzeko, geroratu edo zatikatutako zorraren lehentasuna bermatzeko, eta eskatzaileak zerga obligazioak behar bezala betetzeko.

Zehazki, eta erregelamendu honen 38.3 artikuluko c) letran aurreikusitako eskaera eragotzi gabe, baldintzak ezarri daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiak ebazpenaren indarraldian zehar zergapekoari egin behar dizkion ordainketak gerorapena edo zatikapena betetzeak baldintza ditzan, zenbatekoak jarduera ekonomikoaren jarraipena eta bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe. Horretarako, eta ebazpenak besterik xedatzen ez badu, gerorapenak edo zatikapenak bermea aurkeztetik erabat edo partez salbuetsita ematen direnean, ulertuko da artikuluko horretan aipatutako konpentsazio eskaera egin dela ondorioak izan ditzan kredituak edo zorrak agertu bezain pronto, baita horrek epemugak aurreratzea dakarrenean ere, bidezkoak diren berandutze interesak berriro kalkulatzeko eragotzi gabe.»

Bost. 49. artikuluko 5. apartatua honela geratzen da idatzita:

«5. Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiak zilegi izango du konpentsazioa deklaratzeko, araudi tributario eta zibilean edo berariaz aplikatzeko den legerian oro har ezarrita dauden beharkizunak betetzen direnean.

Ebazpena ezezkoa bada, ondorioak honako hauek izango dira:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada, ezezko ebazpenaren jakinarazpenak berekin ekarriko du 10 eguneko epea hastea, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, diru-sarrera egin dadin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

Zorra ez bada epe horretan ordaintzen, hasiera emango zaio epe exekutiboari, eta premiamenduzko prozedura abiatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluetan jasotako terminoetan.



Era berean, berandutze interesak likidatuko dira ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ezezko ebazpena ematen den egunera arte, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan xedatutakoaren arabera gerora sor daitezkeen bestelako interesak eragotzi gabe.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan, lehenagotik hasi ez bada betiere.»

7. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua aldatzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduari (apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia) h) letra gehitzen zaio, eta honela dio:

«h) Honako autolikidazioak aurkeztu izana, hala dagokionean: zerga bereziarena, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergarena, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarena, energia nukleoelektrikoaren ekoizpenak eragindako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko zergarena, erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzearen gaineko zergarena, gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzketaren balioaren gaineko zergarena, plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga bereziarena, eta hondakinak zabortegetan uzteagatik eta haien errausketa edo koerrausketagatik ordaindu beharreko zergarena.»

8. artikulua. Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan:

Bat. 45. artikulua honela geratzen da idatzita

«45. artikulua. Finantza entitateetan irekitako kontuei buruz informatzeko betebeharrak.

1. Kreditu entitateak eta, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, banku edo kreditu trafikoa diharduten gainerakoak behartuta egongo dira hileko aitortzen informatibo bat aurkeztera entitate horietan irekita dauden kontu guztiei buruz edo beraiek Espainiako lurraldean zein hortik kanpo kokatutako establezimenduetan hirugarrenen eskura jarritako kontu guztiei buruz.

Ordainketa entitateek eta diru elektronikoko erakundeek ere hileko aitortzen informatibo bat aurkeztu beharko dute kudeatzen dituzten kontuei dagokienez.

Kontuak Espainiako lurraldetik kanpo kokatutako establezimenduetan irekita daudenean, ez da egongo zertan eman informaziorik Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten pertsona eta entitate ez-egoiliarrei buruz.

Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo hirugarren herrialdeetan kokatutako entitate horiek Espainiako lurraldean dituzten sukurtsalak ere behartuta egongo dira hileko aitortzen informatibo bat aurkeztera sukurtsal horietan irekita dauden edo haiek hirugarrenen eskura jarritako kontu guztiei buruz.



Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo hirugarren herrialdeetan kokatutako entitate horiek zerbitzu prestazio librean jarduten badute Espainian, araudia erregulatzailerekin bat, hilerio informatu beharko dute entitate horietan irekitako kontuei buruz, Espainiako lurraldean egoiliartutako pertsona edo entitateen alde eta Espainian egoiliartuta ez dauden pertsonen edo entitateen alde Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorren alde irekita daudenean.

2. Zerga Administrazioari datu hauek eman beharko zaizkio:

a) Kontuen identifikazio osoa.

b) Pertsona edo entitate titularren identifikazio datuak, Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluan aipatzen diren titular errealea barne, bai eta ordezkariak, baimenduenak, onuradunenak edo xedatzeko ahalmena duen beste edozein pertsonarenak ere.

Identifikazio datuak honako hauek izango dira: izen-abizenak edo sozietate izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, egoitzako herrialdea eta, pertsona fisikoen kasuan, jaioteguna. Identifikazio fiskaleko zenbakirik ez, pasaporte zenbakia edo sorburuko herrialdean baliodun den nortasun zenbakia adieraziko da, bai eta identifikazio datuen dokumentazioa eman duen herrialdea ere.

c) Abenduaren 31n kontuetan dauden saldoak, eta urteko azken hiruhilekoari dagokion batez besteko saldoa.

d) Ekitaldiko kargu eta ordainketen zenbateko osoak.

Orobat, esanguratsua den beste edozein datu ere eman beharko da, kasuan kasuko eredia onesteko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ematen duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazteko beharrezkoa bada.

Aitorpen eredia bide elektronikoz aurkeztuko da.

Aurrekoa gorabehera, abenduaren 31n kontuetan dauden saldoei buruzko informazioa, urteko azken hiruhilekoari dagokion batez besteko saldoarena, eta kontu horietan egindako kargu eta ordainketen zenbateko osoei buruzkoa urte bakoitzeko azken hilabeteari dagokion aitorpenean bakarrik eman beharko dira.

Eman beharreko informazioan mota guztietako kontuak sartuko dira, banku kontuak zein bankukoak ez direnak, kontu korronteak, aurrezki kontuak, eperako ezarpenak, kreditu kontuak eta bestelako kontu guztiak, modalitatea eta izena edozein dutela ere, nahiz eta horietan ordainketarik, atxikipenik edo konturako sarrerarik egon ez.

Titularren, baimendunen edo onuradunen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia aitortzen den hilabetearen uneren batean izaera hori izan dutenenak izan beharko dira.»

Bi. 46. artikulua honela geratzen da idatzita:

«46. artikulua. Mailegu eta kredituei buruz eta eskudiruko mugimenduei buruz informatzeko betebeharra.

1. Kreditu entitateek eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, banku edo kreditu trafikoa jarduten duten gainerako entitateek urteko aitorpen informatibo hauek aurkeztu behar dituzte:



a) Beraiek emandako mailegu eta kredituek abenduaren 31n dituzten saldoen aitortpena, zenbatekoa 6.000 eurokoa baino handiagoa denean. Aitorpen horretan kreditu edo mailegu hartzailearen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko dira.

b) Txanponetan edo bankuko billetteran egindakon ezarpenei, funtsen xedapenei eta edozein agiriren kobrantzei buruzko aitortpena, zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa denean, erabiltzen den bitarteko fisiko edo elektronikoa edozein dela ere, eurotan egin zein beste edozein dirutan egin.

Aitorpen informatibo horretatik kanpo utziko dira Erregelamendu honen 50. artikuluan ezarritakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion eragiketak.

Aitorpenean honako hauek jasoko dira: eragiketa bakoitzaren zenbatekoa, eurotan; eragiketa ezarpen bat, diru xedapen bat edo kobrantza bat izan den; hura noiz eta nork egin duen; eta karguak edo ordainketak eta diru ateratzeak edo diru sartzeak egiteko erabilitako kontuaren zenbakia. Orobat, kasuan kasuko eredia onesten duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazteko garrantzitsua den beste edozein datu ere jasoko da.

Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan edo hirugarren herrialdeetan kokatutako entitateek, apartatu honetan aipatutakoek, Espainian dituzten sukurtsalek a) eta b) letretan adierazi diren aitorten informatiboak aurkeztu beharko dituzte aurreko paragrafoetan ezarritako terminoetan.

Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo hirugarren herrialdeetan kokatutako entitateek, lehenago aipatutakoek, zerbitzu prestazio librean jarduten badute Espainiako lurraldean, araudi erregulatzailarekin bat, behartuta egongo dira a) eta b) letretan adierazitako aitorten informatiboak aurkeztera baldin eta mailegu hartzaileak edo eragiketa egiten dutenak Espainiako lurraldean egoiliartuta badaude, edo egoitza Espainian ez duten pertsona edo entitateen establezimendu iraunkorrek badira.

Aitorpen eredia bide elektronikoz aurkeztuko da.

2. Era berean, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak behartuta egongo dira aurreko apartatuko b) letran adierazitako aitorten informatiboa aurkeztera, beraiek kudeatutako kontuetan egiten diren eragiketa horiei dagokienez.

Betebehar hori betetzera behartuta egongo dira, halaber, honako hauek: Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan kokatutako entitateek, aurreko apartatuan aipatutakoek, Espainian dituzten sukurtsalak, eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan kokatuta egonik, araudi erregulatzailarearen arabera, Espainian zerbitzu prestazio librean jarduten dutenak; azken kasu horretan, obligazio hori bete beharko da Espainiako lurraldean egoiliartutako pertsonak edo entitateek egindako eragiketengatik edo Espainian egoitzarik ez duten pertsonak edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorren bidez egindakoengatik.»

Hiru. 47. artikulua honela geratzen da idatzita:

«47. artikulua. Edozein txartel motaren bidez eta telefono mugikorreko zenbakiei lotutako ordainbideak erabilia egindako kobrantzei buruz informatzeko betebeharra.

1. Ondoren aipatzen direnek hileko aitorten informatibo bat aurkeztu beharko dute kobrantzak edozein txartel motaren bidez edo telefono mugikorreko zenbakiei lotutako ordainbideak erabiliz kudeatzeko sistemari atxikita dauden enpresaburu edo profesionalek egindako eragiketengatik:



a) Banku edo kreditu entitateek eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, kobrantzen kudeaketa zerbitzua euskarri fisiko edo birtualeko txartelen bidez edo telefono mugikorreko zenbaki bati lotuta egiten duten gainerako entitateek, zerbitzu hori Espainian kokatutako enpresaburu eta profesionali ematen zaienean. Txartelen kasuan, ezinbestekoa da eskudirua, zordunketa, zordunketa geroratua, kreditua eta diru elektronikoa bere funtzioen barruan egotea, edozein monetatan.

b) Ordainketa entitateek, diru elektronikoko erakundeek eta Espainian kokatutako enpresaburu eta profesionalen aldetik salmenta terminalak instalatzea eta kobrantza eragiketak egitea errazten duten gainerako entitateek.

Aitorpen informatibo hori aurkeztera behartuta egongo dira, halaber, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako edo hirugarren herrialdeetako entitateek, a) eta b) letretan aipatutakoek, Espainiako lurraldean dituzten sukurtsalak, bai eta Espainian zerbitzu prestazio libreak jarduten duten entitateak ere, Espainian kokatutako enpresaburu eta profesionali salmenta terminalak instalatzeko eta kobrantzak kudeatzeko emandako zerbitzuengatik.

2. Aitorpenak datu hauek jaso beharko ditu:

a) Kobrantzak edozein txartel motaren bidez edo telefono mugikorreko zenbaki bati lotuta kudeatzeko sistemari atxikitako enpresaburu edo profesionalen identifikazio osoa.

b) Enpresaburu edo profesionalen sistematan operatzeko duten merkataritza zenbakia.

c) Salmenta terminalak, Espainiako lurraldean egon edo ez.

d) Hilean fakturatutako zenbatekoa, txartelen bidez egindako kobrantzak eta telefono mugikorreko zenbakiei lotutako ordainketekin egindakoak bereizita.

e) Kobrantzak egiteko erabilitako banku edo ordainketa kontuen identifikazioa, edo kobrantza horiei emandako beste edozein xede.

Orobat, esanguratsua den beste edozein datu ere eman beharko da, kasuan kasuko eredia onesteko foru aginduan ezarritako informazioa zehazteko beharrezkoa bada.

Aitorpen eredia bide elektronikoz aurkeztuko da.»

Lau. 47 bis artikulua berria gehitzen da, eduki honekin:

«47 bis artikulua. Edozein txartel motarekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharra.

1. Urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu beharko dute edozein motatako txartel fisiko edo birtualekin egindako eragiketei buruz, daukaten funtzioa eskudirua, zordunketa, zordunketa geroratua, kreditua eta diru elektronikoa edozein monetatan eskaintzea denean, honako hauek:

a) Kreditu entitateek eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, banku edo kreditu trafikoa jarduten duten gainerako entitateek.

b) Ordainketa entitateek, diru elektronikoko erakundeek eta, oro har, aipatutako txartelak ematen dituen beste edozein entitatek.



Aitorpen informatibo hori aurkeztera behartuta egongo dira, halaber, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan edo hirugarren herrialdeetan kokatutako entitateek Espainian dituzten sukurtsalak, bai eta, araudi erregulatzailerekin bat, Espainian zerbitzu prestazio librean jarduten duten entitateak ere, azken kasu horretan baldin eta ematen dituzten txartelak Espainian egoiliartutako pertsona edo entitateei edo Espainian egoitzarik ez duten pertsona edo entitateen establezimendu iraunkorrei jaulkitzen bazaizkie.

2. Ekitaldiko karguen zenbateko osoa eta izandako ordainketena 25.000 eurotik beherakoa duten txartelak informazio betebeharrak honetatik kanpo geratzen dira.

3. Zerga Administrazioari datu hauek eman beharko zaizkie:

a) Entitateak txartelak jaulkitzeko formalizatutako kontratuaren zenbakia.

b) Kontratuaren titularren identifikazio datuak, hau da, izen-abizenak edo sozietate izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, egoitzako herrialdea eta, pertsona fisikoen kasuan, jaioteguna. Identifikazio fiskaleko zenbakirik ezean, pasaporte zenbakia edo sorburuko herrialdean baliodun den nortasun zenbakia adieraziko da, bai eta identifikazio datuen dokumentazioa eman duen herrialdea ere.

c) Kontratuari lotutako txartelaren zenbakia (PAN).

d) Txartel mota.

e) Txartelaren titularraren identifikazio datuak, b) apartatuan adierazitakoak, bai eta txartela erabiltzeko baimena duten pertsonenak ere, izan baimendunak, onuradunak edo bestelakoak.

f) Urtean zehar txartelean erregistratutako ordainketa kopurua eta zenbateko osoa, eskudirutan egindako karga kopurua eta haien zenbateko osoa ere adierazita.

g) Urtean zehar txartelean erregistratutako kargu kopurua eta haien zenbateko osoa, urtean establezimenduetan egindako ordainketengatik zenbat gastu eragiketa egin diren eta haien zenbateko osoa zein den adierazita. Orobat, urtean eskudirua zenbat aldiz atera den txartelarekin eta haien zenbateko osoa zein den adieraziko da.

h) Txartelarekin operatzeko hari lotuta dagoen kontuaren identifikazioa, halakorik badago. Banku Kontuaren Nazioarteko Kodea (IBAN) izan daiteke edo, bestela, bezeroaren kontu kodea.

Orobat, esanguratsua den beste edozein datu ere eman beharko da, kasuan kasuko eredia onesten duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazteko beharrezkoa bada.

Aitorpen eredia bide elektronikoz aurkeztuko da.»

Bost. 56.1 artikuluko b) letra honela geratzen da idatzita:

«b) Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen lehen xedapen gehigarrian araututako baloreen interesak, bai eta xedapen hauetan aurreikusi eta gehienez hamabi hilabetez deskontura jaulkitako zor tresnetatik eratorritako etekinak ere.»

Xedapen iragankor bakarra. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatua 2025eko zergaldirako



aukeratzeko eta aukera horretan atzera egiteko epe berezia jarduera artistikoei dagokionez.

Bat. Foru dekretu honen artikuluko bakarreko lehen ordinalaren bigarren apartatuak gehitutako 33 bis artikuluko jarduera artistikoak egiten dituzten zergadunek nahi baldin badute zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatua 2025eko zergaldirako aukeratu edo aukera horretan atzera egin urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsita dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 28. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan eta haren 29. artikuluko 2. apartatuan jasotakoaren arabera, 2025eko zergaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioan adierazi beharko dute hori. Esandako autolikidazioak epe barruan aurkeztuta egon beharko du.

Bi. Xedapen iragankor honen 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera egiten den aukerak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduaren 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera egindako aukeraren ondorio berberak izango ditu.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Bat. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, bertan espresuki jasotako ondorioak eta hurrengo apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

Bi. 8. artikuluan jasotakoa, bosgarren apartatuan jasotakoa izan ezik, 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aplikagarria izango da, lehenengo aldiz, 2026. urteagatik data horretatik aurrera aurkeztu behar diren aitorten informatiboei dagokienez, kasuan kasuko ereduak onetsiko dituen foru aginduan ezarritakoarekin bat.